

SEGMENTAZIOA:

Merkatuaren segmentazioari dagokionez, bezeroak dira aplikazio honen funtsa nagusia. Bezerorik gabe, gure webguneak/enpresak ezin izango du luzaroan iraun. Hori dela eta, oso garrantzitsua baita bezeroei tratu ona ematea, berriz ere aplikazioa erabil dezaten. Gure bezero gehienak ikasleak izango dira, edo ikasten ari direnak. Plataforman, apunte desberdinak eskuratzeko aukera izango dute. Bertako lanak erosiz aurrera atera ahal izango dutelako beraien ikasketak. Horrela, nota hobekia lortzen lagunduko diela suposatzen dugu. Bezeroen zerrenda zabala izango genuen, esaterako, ikasten ari diren ikasleek, unibertsitateko ikasleek... erabiltzeko aukera izango dute, bestalde, autonomoak direnak ere aukera izango dute bertan nabigatzeko.

Pertsona gazteak eta ikasleak aukeratu ditugu gure bezero moduan hainbat arrazoi desberdinengatik. Lehenik eta behin, internetera gehien ohituta dauden merkatuaren zatia dira, beraz, gehiago jakingo dute webguneari buruz eta errazagoa izango zaie nola funtzionatzen duen ulertzea. Ikaste prozesuan daudenez, beste ikasle batzuetatik ikasteko aukera izango dute ere, hainbat ikuspuntu desberdin konparatzeko ahalmena edukiz. Pertsona gazte hau ikasteko sumina edukiko dute eta gure helburua beraien lana apur bat erraztea izango da. Autonomoei begira, bakarrik edo talde txikietan lan egiten hastea kosta egiten denez, beste pertsona batzuen proiektuak eta lanak edukiko dituzte oinarri bezala.

Merkatuari dagokionez, gure produktua merkatu masiboan kokatuko genuke. Interneten agertuko den zerbait sortuko dugunez, mundu guztiak edukiko du sarbidea webgunera, eta beraz, eskaintzeko duen guztia aprobetxatzeko aukera ere.